



Eskuliburu honen helburua

Irakasleentzako eskuliburu honek CHANGEren parte funtsezkoa den ikastaro hau zuzentzen lagundu nahi du. Eskuliburu honek honako hauek deskribatzen ditu: ikastaroko testuingurua, pausoak, helburuak, edukiak eta metodoak. Eta irakasleei ikastaroa ematen lagundu nahi die CHANGEren irakaskuntza-ikuspegiarekin bat etorritz. Halaber, eskuliburu honek zure irakaskuntza-estiloa eta zure irakaskuntza-programaren eskakizunak osatu nahi ditu.

Ikasleek proiektuaren webgunea erabili dezakete ikasturteko 6 etapen arabera egituratuko lan-orduak lortzeko.

CHANGE, ikastaroaren testuinguru

Eskuliburu honetan azaltzen den ikastaroa CHANGEren proiektuaren zatia da.

Honako honetan laguntzea du helburu proiektu horrek: gazteak babesa/migrazioa gaiaren arloan dituzten jarrerez eta balioez ohartzea, pentsamendu kritikoa erabiliz; gertaerak eta iritziak bereiztea, eta aurreiritziak, propaganda eta gorroto-diskurtsoa hautematea. Hala, ikasleek ongi oinarritutako iritzi propioak eta sendoak emateko gaitasuna eskuratuko dute.

Buru ireki bat sustatu nahi da, bere ikuspegiaren mugaz ohartzen dena eta ikuspegi berri eta zabalagoetara irekitzen dena, bereziki asilo-eskaera egin dutenekin, errefuxiatuekin eta migranteekin harremanak izatean. Buru irekia izatea ez dago bakarrik lotua arrazoiarekin eta ezagutzarekin; izan ere, enpatia sustatu nahi da, baita emozionalki beste pertsonen lekuan jartzea (bereziki, errefuxiatuen eta migranteen tokian) ere, eta, hala, jarduteko motibazioa eta orientazioa eskuratuko da. Ikasleak motibatu, eta laguntza ematen zaie, eskuliburu honetako ikastaroan oinarrituta dauden jardueretan eta ekitaldietan (Ikasle Enbaxadoreek sortuak) parte har dezaten; jarduera eta ekitaldi horien bidez sortu nahi den gizartean, migranteen ekarpen baikorra posiblea eta estimatua izango da, eta babesa ematea aberastetzat joko da.

Ikastaro honek proiektuaren helburuak lortzea sustatu nahi du, ikasleei honako hauetan laguntzen: beren jarrerez eta ikuspegiez ohartzen, babesa/migrazioa gaiari buruzko ezagutzak modu kritikoan eta aktiboan eskuratzen, pertsona errefuxiatuekiko topaketak bizitzen, eta bakarkako eta taldekako ekintzarako abiapuntuak aurkitzen. Hala, ikastaroari esker, buru irekia izatea estimatu eta hura indartzen laguntzen duen hezkuntza-prozesua lortzen da.



Nola hurbiltzen gara hezkuntzara?

Ikastaro honetan, honela laburbil daiteke hezkuntzari buruz dugun ikuspegia:

Hezkuntza(k)/ri esker...

- ✓ ezagutza faktikoak (horiek oso garrantzitsuak badira ere) barneratzea baino gehiago da
- ✓ iritziak (baita balio-iritziak ere) mundu konplexu batean sortzeko trebetasuna orientatu eta sustatzen du
- ✓ indar motibatzailea duten jarrerak eta balioak garatzea sustatzen du
- ✓ parte-hartzaileek beren sentimenduak modu egokian txerta ditzakete iritziak sortzean (pentsamendu kritikoa ez da emoziorik gabeko prozesu bat, emozioek orienta gaitzakete, baina baita desbideratu ere)
- ✓ informazioa eta esperientzia harrigarri eta gogaikarriak behar ditu, aurreiritziak, estereotipoak, aurrezagutzak (faltsuak) eta ditugun orientazioak zalantzatan jartzeko
- ✓ esperientzia “errealak” eta sinesgarriak behar ditu, bakoitza bere banakako eta taldekako hausnarketarekin
- ✓ pertsonen arteko topaketetan eta baterako praktketan hartutako esperientzia “sozialak” behar ditu, bereziki
- ✓ ez da norabide bakarreko hezkuntza-prozesu bat, baizik eta beste pertsona batzuen laguntza, babesa eta orientazioa behar dituen auto-hezkuntza bat

Ikastaroaren egitura

Ikastaroa 6 etapatan banatuta dago (bakoitzak, gutxienez, 45 minutu ditu). Denbora hori behar baita lehenago aipatutako helburuak eskuratzeko. Ikasgelaren egoera eta eskakizunak zein diren, ikastaroa luzatu egin daiteke, etapa bakoitzeko bi saio erabiliz. Etapetan, zenbait ariketa daude. Astia izanez gero, posible eta gomendagarria da ariketa guztiak edo ahalik eta gehien egitea. Astirik ez baduzu, hautaketa bat egin dezakezu.

Aurrekoa gorabehera, garrantzitsua da 6 etapa horien ordenari eustea, elkarren gainetik eraikitzen baitira. Jakina, ikasgaiak eta ariketak beste modu batean planteatu ditzakezu, zure beharren arabera.



✓ **1. ETAPAN**

ikasleak ohartuko dira zein diren beren orientazioak babesarekin eta migrazioarekin lotutako balio eta esperientziei dagokionez; galdera garrantzitsuak sortuko zaizkie, eta gaiarekiko jakin-mina eta irekitasuna piztuko zaie.

✓ **2. ETAPAN**

ikasleek praktikatuko dute informazioa modu kritikoan prozesatzen eta ezagutzak lortzen babesaren eta migrazioren gairi buruz.

✓ **3. ETAPA**

ikasleek errefuxiatuen lekuan jartzeko aukera izango dute, eta, hala, ezagutzak beren esanahiarekin hartuko dituzte; enpatia garatuko dute lekukotzen bidez eta, ahal bada, egiazko topaketa baten bidez.

✓ **4. ETAPAN**

ikasleek oinarri normatiboak (giza eskubideak) ezagutuko dituzte, eta ikasiko dute ongi oinarritutako iritziak nola sortu, baita horien alde nola egin besteekin eztabaidan ari direnean.

✓ **5. ETAPAN**

ikasleek ikasiko dute nola kudeatu aurreiritziak, gutxiestea eta bazterkeria, eta gorrotoaren hizkerari aurre egiteko estrategiak nola garatu.

✓ **6. ETAPA**

banakako nahiz taldekako ekintzarako aukerez eta norberaren abiapuntuez ohartuko dira.



Etapen egitura

Etapa bakoitzak zenbait pauso ditu eta elkarren gainean eraikitzen dira. Etapa bakoitzaren hasieran eta bukaeran, paragrafo bana aurkituko duzu; batek aurreko etapa azalduko dizu, eta besteak ikasgaia bukatzeko hausnarketa-ariketa bat proposatuko du.

Hausnarketa-ariketak, beti, bi elementu proposatzen ditu:



objektu egoki baten, sinbolo baten edo ikasleak egindako marrazki baten argazki bat egitea;



eta galdera zehatz baten erantzun laburra idaztea.

Oso erabilgarria litzateke ikasleek bi gauzak (argazkiak eta oharrak) dokumentatu ahal izatea berek erabiltzeko online "egunkari batean". Egunkaria online izan daiteke, baina paperezko bat ere erabil daiteke. Azken ikasgaiaren bukaeran, egunkariaren edukiari helduko zaio berriz.

Ikastaroa prestatzea

Ikasgelako egoera

Ikastaroak modu eraikitzailean erabiltzen du aniztasuna, zenbait alderditan, eta egiazko edo alegiazko alteritatearekiko irekitasuna sustatzen du.

Horregatik eskatzen dizugu zure gelako egoera aztertzeko denbora har dezazun:

- ✓ Nola dago osatuta ikasgela ikasleen ezaugarri sozial, etniko eta kulturei dagokionez?
- ✓ Gatazka horiek zerikusia izan dute desberdintasun horiekin?

Aztertu gatazken (halakorik badago) kalitatea eta intentsitatea:



- ✓ Gatazkak hain dira handiak ezen ez baitago hurbilketa irekirik aniztasun/migrazio-aferei dagokienez? Ikastaro honen helburua eta ariketak aintzakotzat hartuz: Susmatzen duzu ikasleak ez direla erabat irekitzen badirelako gatazkak, eta ez dutela batere parte hartzen eztabaida irekietan? Edo gerta daiteke parte hartzea baina dauden gatazkak indartu ahal izatea, eta ikasleek elkarren artean edo beren buruei min ematerainoko egoera bat sortzea? Hala bada, ez du zentzurik ikastaroa egitea, ez baitu burua irekitzea ekarriko eta pertsonak min har baitezakete. Kasu horretan, beharrezkoa da gatazkak transformatzea gatazkak kudeatzeko metodo egiaztatuen bidez eta, beharrezkoa bada, profesional baten laguntzarekin, eztabaida ireki bat lortu ahalizateko. Baliagarria litzateke eskolako autoritateei galdetzea ea ikastaroa egin dezakegun eta kanpoko zer laguntza-mota behar den prestatzeko.
- ✓ Beharbada, gatazka horiek aipatutako gai horiei buruzko eztabaida bizia izateko aukera sortzen dute? Kasu horretan, tentsioek eta gatazkek nork bere burua hobeki ezagutzen lagundu dezakete eta burua irekitzen.

Zure gelan, ba al dago errefuxiatu edo migrazioarekin lotura duen ikaslerik? Aztertu, faborez, egungo egoera:

- ✓ Modu ireki eta bizian eztabaidatu daitezke jazarpenei eta migrazioari buruzko galdera eta esperientziak, ikasleak kezkatuta, beldurtuta edo gutxietsita sentitu gabe? Batez ere: Badakizu ea zure gelan badagoen ikasle traumatizaturik? Ikasle askok trauma-esperientziak izaten dituzte, gerrarekin, jazarpenarekin edo ihesarekin lotuta, eta horiek beren osasun mental eta fisikoari eragin diezaizkete, gertatu eta handik denbora luzera. Baldin badakizu edo susmatzen baduzu ikasgelan traumak jasan dituzten ikasleak badirela, ikastaroa bakarrik egin daiteke traumetan aditua den pertsona bati galdetuz gero (adb: traumarekin lan egiten esperientzia duten psikologoak). Ez izan zalantzarik eta eskatu laguntza profesional bati, eta, beharrezkoa izanez gero, kanpoko profesional bati. CHANGEko zure solaskideak lagundu diezazuke horretarako babesa lortzen. Trauma bat jasan duten ikasleak arriskutan jartzeko aukera



badago, ezin izango da ikastaroa egin. Ezin izango da ikastaroa egin ukitutako ikasleak kanpoan utzita. Traumetan adituak diren pertsonekin kontsulta egin eta gero, seguru bazaude esperientzia traumatikoak eta estres-egoerak bizi izan dituzten ikasleak gai direla ikastaroan parte hartzeko, giro sendagarria sor daiteke, ikastaroa kontu handiz gidatuz gero."

Zure testuingurua eta abiapuntua

Hau da ikastaroaren helburuetako bat: **ikasleei errefuxiatuen eta migranteen egoerari buruzko ezagutza faktikoak barneratzen laguntzea**. Irakasle gisa, ez da beharrezkoa gaien aditua izatea, ezta ezagutza handia izatea ere. Hala ere, garrantzitsua da ohartzea zer muga izan ditzaketen zure ezagutzek eta, behar izanez gero, onartzea modu aktiboan informazioa bilatu behar duzula eta hausnarketa egin. Helburu horretarako, termino garrantzitsuenen glosario bat bildu dugu eta informazio-iturrien zerrenda bat. Hori ere lagungarria suerta dakizuke kanpo laguntzaren bila ari bazara. CHANGEko zure solaskideak ezagutza eta esperientzia ditu arlo horretan, eta galdera askoren erantzuna eman ahal izango dizu. Beharrezkoa izanez gero, CHANGEko zure solaskideak gaiari buruzko prestakuntza-aholkuak eman diezazkizuke. Ez izan zalantzarik eta aprobeixatu haren ezagutzak!

Ikastaroan, errefuxiatuekiko, migranteekiko eta aniztasunarekiko zure esperientziez eta jarreraz (ez beti kontzienteak) ohartuko zara eta horiek modu eraikitzailean erabiliko dituzu.

Irakasleak ikasleen arteko trukea metodikoki gidatu eta moderatu behar badu ere bere esperientziak eta jarrerak ahalik eta neurri txikienean ekarriz, garrantzitsua da horretaz jabetzea. Horregatik saiatu behar duzu gai horrekiko dituzun esperientziez, jarreraz eta sentimenduez ohartzen.

- ✓ Errefuxiatuekin eta migrazioarekin esperientziak izan badituzu: Esperientzia horietako zeinek lagun diezazuke babes/migrazioari buruzko ikasleen arteko trukea sustatzen, eta errefuxiatuekin edo ikasleekin egin beharreko topaketa planifikatua prestatu eta horri buruz hausnartzen?



- ✓ Funtsezkoa da aurreiritziei eta estereotipoen buruzko ikastaro bat eman behar duen edozein irakasle sentsibilizatzea izan ditzakeen mota horretako jarreretik. Kontua ez da “horietatik askatzea”, baizik eta horiekiko sentsibilizatzea eta bere puntu itsuen eta ikuspegiaren jabe dela lan egitea.

Prestakuntza gisa, erabilgarria izan daiteke zure burua ariketa txiki batean behatzea. Iruditu bazaizu bideo honek ekarpena egin dizula, ikastaroan erabil dezakezu! (adibidez, 5. Etapan, 1.2 pausoa).

“Istori bakarraren arriskua”

Chimamanda Adichie Nigeriar idazlea ikasle gisa ailegatu zen AEBra, eta ez errefuxiatu gisa, baina irudi edo istorio jakin bati (“istorio bakarra”) lotuta egotearen esperientzia bizi izan zuen. Bere mintzaldian deskribatzen du nola bizi izan zuen finkatze eta murrizketa hori: onarpenarekiko ukatze gisa, botere-egikaritze gisa, baita bere duintasuna kendu izan baliote bezala ere.

Ikusi [TED-Talk](#) nola hitz egiten duen istorio bakarraren arriskuaz:



Hausnartu mintzaldiari buruz, honako galdera hauek eginez:

Adichiek dio istorio bakarrera murrizten bagaituzte “gure duintasuna kentzen digutela”. Zure iritziz, egiatan bortxatzen da gure duintasuna? Eta, hala bada, nola?

Noizbait ere beste pertsona batzuek sailkatu zaituzte istorio bakar baten arabera? Hala izan bada, zer istoriotan mugatu zaituzte? Nola bizi izan duzu eta nola egin diozu aurre horri?

Beste pertsonetikiko harremanean pentsatzen duzunean: Baduzu joera beste



pertsonak istorio bakar baten arabera mugatzera? Hala bada, zehazki zer talderetik duzu istorio bakar baten arabera mugatzeko joera hori? Nola egiten diozu aurre joera horri? Eta: Zerk laguntzen dizu burua irekitzen eta beste pertsonen istorio desberdinetara irekitzen?

Auto-hausnarketa horretatik abiatuta, egoera onean egongo zara ikastaroa diseinatzeko. Beharrezkoa izanez gero, lagungarria izan daiteke kanpoko laguntza bilatzea, baita adituena ere, Change zure solaskideen artean.

GOAZEN 1. ETAPARA